

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako iparraldeko zenbait gunetan sua erabiltzea galarazi da basoko suteak pizteko dagoen arriskuagatik

22 udalerriri eragiten die, egungo meteorologia-baldintzak aldatzen ez diren bitartean

Martes, 22 de diciembre de 2015

Foru Gobernuak gaurtik aurrera, salbuespen modura, Nafarroako iparraldeko zenbait gunetan sua erabiltzea galarazi du suteak sortzeko dagoen arriskuagatik, eta gaur egungo meteorologia-baldintzak aldatzen ez diren bitartean.

Zehazki, urak Kantauri aldera isurtzen duten arro hidrografikoen barnean dauden iparraldeko gunetako baso-lurrei eragiten die, 22 udalerriri zehazki: Arano, Goizueta, Leitza, Areso, Ezkurra, Eratsun, Saldias, Zubieta, Ituren, Doneztebe-Santesteban, Urrotz, Donamaria, Beintza-Labaien, Sunbilla, Etxalar, Arantza, Igantzi, Lesaka, Bertizarana, Baztan eta Luzaide/Valcarlos.

Neguko kanpaina honetako meteorologiaren ezaugarriak honako hauek dira: lehorre-epe luzea, garai honetarako tenperatura altuak, hezetasun-indize txikiak eta hegoaldeko haizeak; horrek guztiak basoko suteen arriskua oso handia izatea dakar.

Debeku hori jarri da sastrakak, mozte eta inausketen hondakinak erre ez daitezen eta basoko beste lan batzuk ez giteko.

Hala jasotzen da Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilari Isabel Elizalde gaur sinatutako foru agindu batean, Nafarroako Aldizkari ofizialean datozen egunotan argitaratuko dena.

Aipatu behar da ere, egunotan zaintza-lanak areagotu direla Basozaintza, Foruzaingoa eta Sepronaren artean koordinatuz.